



entzen ausartu
este Carl Sagan bat egon daiteke.
Zu al zara?

CAF ELHUYAR

sariak 2010

Dibulgazio-artikulu orokorra

José María Rivadeneyra

Egilearen doktore-tesian
oinarritutako dibulgazio-artikulua

Naroa Aldanondo Aristizabal

Gazteei zuzendutako zientzia-narrazioa

Aitzol Lasa Oiarbide

Zientzia-kazetaritzaren arloko lana

Xabier Martin Tejeria

Merezimendu saria

Jose Ramon Etxebarria

Aitzol Lasa Oiarbide

"Letren eta zientzien arteko sedukzio-jolas bat da liburua"



INIGO IBANEZ

**Aitzol Lasa (Barañain, 1978).
Matematikaria. Matematikako
irakaslea Nafarroako Unibertsitate
Publikoan eta bigarren hezkuntzako
ikastetxeetan; azkenekoz, Lekarotzeko
Institutuan.**

Zaila da dibulgazioa eta literatura uztartzea?

Oso ongi uztar daitezke. Letrak eta zientziak ez daude kontrajarrita; aitzitik, elkarren eskutik joan daitezke. Eta hori ahalegina eta interesa da, eta nik uste dut merezi duela.

Ez da asko jorratutako bidea. Ez daude erreferentziatzeko lan asko, ezta?

Ez, ez daude. Eta, horregatik, lehiaketa honek duen interesa hori da. Elhuyarren bide berri bat ireki duzue, eta oso bide interesgarria da, nire ustez. Zortea izan dut! Ni izango naiz bide horretan lehenengo urratsak

egingo dituen. Baina suposatzen dut honek aurrera jarraituko duela. Liburuaren gaia ere horri buruzkoa da. Istorioa institutu-garaian dago girotua, eta bi pertsonaia nagusi daude. Nik institutuan ikasi nuenean, beti joko hori egiten zen: "Zu zer zara, letretakoa ala zientziatakoa?" Kontrajarriak egongo balira bezala. Narrazio honetan, horrekin jolastu nahi izan dut. Bi pertsonaien arteko sedukzio-jolas bat da.

Zientzietako neska bat eta letretako mutila bat.

Bai. Ideia da sedukzio-joko bat dagoela, eta istorioa interesgarria egin nahi baldin bada, zer sartu behar da? Bada, maitasun pixka bat.

Eta bizikletak!

Oso bizikletazalea naiz. Iruñean bizi naiz, eta bizikletan ibiltzeko oso hiri aproposa izan da beti. Bada liburuan beste zehar-gai bat liburu

osoaren haria dena: atmosfera, zerua, hodeiak eta abar. Eta garbitasun-sentsazio horretan, iruditu zitzaidan bizikletak ere baduela tokia. Bizikleta narrazio osoan zehar agertzen den elementu bat da.

Liburua ez da osorik aurkeztu. Lagin bat besterik ez zizuten eskatzen, eta falta dena idazteko urtebete izango duzu, gutxi gorabehera.

Ez dago bukatuta, hori da. Lagina dago aurkeztuta; horri esker irabazi du, baina hezurdura hori osatzea falta da.

Buruan duzu falta dena?

Dena buruan daukat, baina ez dizuet kontatuko. Horretarako, liburua irakurri beharko duzue [barreak]. Irakasle-lanetan nabil, eta uda baliatu beharko dut idazketa-lan potoloena egiteko. Eta datorren urterako edo aritaratuko da.

Argitaratzailea:
Elhuyar Fundazioa
Zelai Haundi, 3.
Osinalde industrialdea
20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
tel. 943 36 30 40;
Faxa: 943 36 31 44
www.elhuyar.org

Koordinatzailea:
Eider Carton, e.carton@elhuyar.com


Jatorrizko diseinua eta maketa:
BLANCO soluzio grafikoak

© Elhuyar Fundazioa
Elhuyar Fundazioak gehigarrian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik ez du
derrigor bere gain hartzen.



Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak
diruz lagundutako proiektua

ANTOLATZAILEAK



ELHUYAR
fundazioa

CAF

Nabarmen
Hor kanpoan be

